

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2011ko urtarrilaren 20a. VIII. urtea. 2.161. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

## Amarotzen «markesina duina» jartzeko eskatu dute auzotarrek

Tolosako Hiribusak auzoan egiten duen lehen geldialdiko espaloian aterpe berezia egin dute Auzo Elkarteko kideek aldarrikapen gisa ◦2

## Fammmilia enpresak sortutako ardo etiketa, onenetakoa


AEBetako MOMA museoak erakusketa baterako aukeratu du Mikel Aguado tolosarraren lan-taldeak egindako diseinua ◦4

## Haimar Altuna euskal preso lizartarra gaur iritsiko da etxera

Herenegun epaitu zuten Entzutegei Nazionalan eta atzo eman zuten jakitera epaileak aske uztea erabaki duela ◦4

## Txolarre irradiak bertso jaialdia antolatu du etzirako

Tolosako Leidor Antzokian izango da 18:00etatik aurrera; Lujanbio, Arzallus, Egaña, Mendiluze, Maia eta Estiballes izango dira ◦6



→ **Ero-Etxeko krosa.** Tolosako Ero-Etxe elkarteak urtero antolatzen duen krosaren 24. edizioa izango da aurtengoa. Azken bi urteetan ibilbide desberdina egin behar izan dute azpiegitura lanen ondorioz, baina aurtengoan hasierako bidea egin behar dute hurrek. Antolatzaileek jasotzen duten laguntza eskertu nahi izan dute. ◦3

A.MAZ

**ADI!**  
bihar  
harpidedunentzako  
**ESKAINZA  
BEREZIA**

**EZAGUTU  
WEBGUNE BERRIAK**

[www.TOLOSALDEA.hitza.info](http://www.TOLOSALDEA.hitza.info)  
[www.IBARRALDEA.hitza.info](http://www.IBARRALDEA.hitza.info)  
[www.ALEGIALDEA.hitza.info](http://www.ALEGIALDEA.hitza.info)  
[www.LEITZALDEA.hitza.info](http://www.LEITZALDEA.hitza.info)  
[www.TOLOSA.hitza.info](http://www.TOLOSA.hitza.info)  
[www.ANOETALDEA.hitza.info](http://www.ANOETALDEA.hitza.info)  
[www.VILLABONA-AIZTONDO.hitza.info](http://www.VILLABONA-AIZTONDO.hitza.info)

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

Dagoeneko irekita!

**EGYZKITZA**  
TOLARE SAGARDO TEGIA  
TEL. 943 67 26 13



Amarozko auzokideek protesta moduan eraiki duten markesina. Alboan, Usabal kiroldegiko kanpoaldean udalak ezarritako markesinetako bat. LURKIZU

# Amaroztarrak autobusaren zain egoteko markesina eske daude

Herriko beste leku batzuetan bezala, Amaro azuzoan ere «markesina duinak» merezi dituztela aldarrikatzen dute

Udaleko arduradunek Inauterietarako markesina jarrita izango dela diote

## Itzea Urkizu Azpiegiturak

Azken astean amaroztarrek berrikuntza bat izan dute auzoan: markesina berezi samarra jarri dute Tolosako Hiribusak auzoan egiten duen lehen geldialdiko espaloian. Aterpea berezia da; egurrezko egitura du eta plastikoz ba-

bestu dute. Herritarren artean jakin-mina sortu duen kontua da makinarena.

### Amaroztarren aldarrikapena

Amaroz Auzo Elkarteko kideak «nekatu» egin dira auzotarrentzako markesina duinak eskatzeko. Tolosako Hiribusa martxan

jarri zenez geroztik bospasei urte dira jada, eta denbora honetan guztian urbanoaren erabiltzaileentzako aterpe-eskaerak burutu dituzte «behin eta berriz» amaroztarrek. Udaletxeko arduradunek «aitzakiak besterik ez» dizkietela eman diote auzotarrek, eta egindako azken bileran «aurrekonturik ez dagoela» jakinarazi zieten. «Egia esan jaramon handiegirik ez digute egiten», dio Amaro Auzo Elkarteko kide batek.

Honekin batera, Tolosako beste leku batzuetan azken hilabeteotan ezarri dituzten markesinak ere nabarmendu nahi izan dituzte Amaro bizilagunek, izan

ere, «erabiltzaileen gehiengo osoatzen dugu auzotarrok, eta herriko beste lekuetan bezala, autobusaren zain egoteko aterpe duinak merezi ditugu». Honen aurrean, eta «hamaika eskaeren ondoren», euren aferaren alde protesta egiteko biderik egokiena eskuz egindako markesina bat eraikitzea dela iruditu zaie. Gainera, udalaren *Tolosa 2015* plana parodiatzen duen mugikortasun plana zabalduko dute euren aldarrikapenarekin jarraitzeko.

### Udala aurrekontuen zain

Tolosako Udaleko arduradunek, beren aldetik, «aurrekontu-eskasia» aipatu dute: «Foru Aldun-

diak diru laguntza bat eman zuen markesinentzako, baina ezin izan genituen nahi beste aterpe jarri», dio Olatz Peon zinegotziak. Administrazioan kontuak nahi baino motelago joaten direla aipatu du, baina aurrekontu berriak jada eskatuta daudela eta Inauterietarako Amaro markesina jarrita egongo dela ziurtatu du.

Amaroz auzo bezala «oso bizia» dela azpimarratu nahi izan du zinegotziak, eta uneoro Auzo Elkartekoekin bilduta izan dela. Alde horretatik, «euren nahiak adierazteko modu originala» iruditu zaiola dio, eta «logikoa» dela aldarrikapen bat burutzeko. Izan ere, «Amaroz da Tolosako erdigunetik urrunen geratzen den auzoa, eta jende asko bizi da bertan. Ondorioz, amaroztarrek sarri erabiltzen dute urbanoa auzotik herrira errazago hurbiltzeko».

Erabiltzaile kopuruaren auzoan Peonek zera dio: «Udaleko langileek ikertzen dute erabiltzaile kopurua zenbatekoa den, eta baita urbanoarentzat eguneko zein ordu izaten diren garrantzitsuenak ere». Hori abiapuntu hartuta, «markesinen kokalekuak erabakitzeke ondorioak atera ditugu». Adibide gisa Usabal kiroldegiko markesinarena aipatu du, izan ere, «herritar askok eskatu zuten kiroldegi aurrean markesina jartzea, oso urruti geratzen baita sarrerako atea espaloitik; jendeak korrika joan behar izaten zuen autobusera».

Azkenik, udaleko arduradunak geratzen zaien bakarra, «auzotarrek eraiki duten markesina horren segurtasun osoa bermatzea» dela dio, «inolak ezbeharririk gerta ez dadin».

## Zineko sarrerak salgai gaurtik aurrera

### Itzea Urkizu Kultura

Eskuragarri izango dira gaurtik aurrera otsailaren hamazazpira bitarte Leidor zineman eskainiko dituzten pelikuletarako sarrera nahiz bonuak.

Sarrera eta bonuak erosteko, gaur 17:00etatik 19:00etara bitartean Leidorreko lehiatila irekiko dute. Horrez gain, zine-saio bakoitzaren ohiko ordutegian ere lortu

ahal izango dira sarrerak. Hauek eskuratzeko azken eguna urtarrilaren 27a izango da.

Gaurtik hasi eta otsail erdialdera bitartean ikusgai izango diren filmeen artean, aukera zabala izango du ikuslegoak. *La montaña mágica* eta *Enredados* haurrentzako filmetatik hasi, eta *Copia certificada* bezalako pelikulak jatorrizko bertsioan ikusteko aukera izango da. Bestalde, euska-

razko zinemas ere gozatu ahal izango dute ikusleek, kasu honetan gaztetxoek, *Midas erregearen altzorra* filmarekin.

Alpatutakoez gain, *Burlesque*, *Déjame entrar*, *La llave de Sarah*, *The Ladykillers*, *Los próximos*

*tres días*, *Los viajes de Gulliver*, *Lourdes*, *Planes para mañana*, *Camino a la libertad*, *Ne changerrien* eta Borja Cobeaga eta Alex de la Iglesia zuzendari euskaldunen *No controles* eta *Balada triste de trompeta* ere ikusgai izango dira.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Apartamentua.** Jakako erdigunean, altzariz erabat hornituriko apartamentua salgai. Garaje eta trasteroa ere baditu. Interesatuak dei dezatela ondorengo telefono zenbakira: 667492557.

### GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Bolder Collie arrazako txakurra galdu da Tolosan. Txuria eta beltza da eta bi urte ditu. Ikusi edo aurkitu duenak deitu ondorengo telefono zenbakira. Eskerrik asko: 634 45 91 10.

Beti Alai

jatetxea

Garaian  
garaio janariak  
Arraikiatan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

# Igandeko Ero-Etxe elkartearen kroserako dena prest aurkitzen da

Bi urteko tartearen ondoren, hasierako ibilbidea egingo dute bertan parte hartzen duten haurrek

Asier Imaz Tolosa

Ero-Etxe elkartearen XXIV. Krosera aurkeztu zuten atzo. Proba igandean jokatu da eta aurkezpen ekitaldian ondorengoek hartu zuten parte: Joxean Goikoe-txea, Ero-Etxeko lehendakariak, Joxema Saez, Kroserako komisio taldeko kideak eta Oskar Renedo, Tolosako Kirol saileko zinegotziak.

Joxema Saezen esanetan, urte-tik urtera aurrekontua gorantz doa eta zailtasunak agerikoak dira: «Aurtengo edizioaren aurrekontua 6.500 eurokoa da. Jende askoren laguntza jaso dugu, baina udalarena azpimarratu behar dugu. Hori bai, hurrengo urtean 25 urte beteko ditu krosak eta zer-bait berezia egin nahi dugu, ea laguntzak ere handitzen diren».

Oskar Renedok bere aldeak, eskerrak eman zizkien Ero-Etxe elkarteakoei, 24 urte hauetan egin-



laz 700 haur inguruk hartu zuten parte Ero-Etxe elkartearen kroseran. JON MUJIKA

dako lanagatik. Saezi berriz, Kirol sailaren aurrekontuetan hurrengo urteko edizioa kontuan hartuko dutela erantzun zion.

Aurtengoari dagokionez, ibilbidean aldaketak egongo dira. Azken bi urteetan, azpiegitura lan desberdinen ondorioz, krosak ibilbide berria izan du. Behin lanak amaitu ostean, hasierako zirkuitura itzuliko da Ero-Etxe elkartearen krosa.

## ↓ XXIV. edizioa

### IRTEERA ORDUA ETA IBILBIDEA

- **11:30ean.** Infantil mutilak. Bi itzuli luze: 2800 metro.
- **11:45ean.** Infantil neskek. Bi itzuli motz eta luze bat: 1950 metro.
- **12:00etan.** Alebin mutilak.

Itzuli motz bat eta luze bat: 1400 metro.

- **12:15ean.** Alebin neskek. Itzuli motz bat eta luze bat: 1400 metro.
- **12:25ean.** Benjamin mutilak. Bi itzuli motz: 1100 metro.
- **12:35ean.** Benjamin neskek. Bi itzuli motz: 1100 metro.

## Irudia ◊ Tolosa



## ZUHAITZ BERRIEN ZAIN

Tolosako San Frantzisko ibilbidean, egoera txarrean zeuden hamar zuhaitz moztu dituzte erditik. Udaletik azaldu dutenez, «zuhaitz hauek usteltze prozesuan zeuden, horregatik beharrezkoa izan da mozketa hauek burutzeta». Zuhaitz berriak hiru aste barru landatuko dituztela ere azaldu dute. Zumalakarregi kalean ere datoren astean egingo dute zuhaitzen zaharberritzea. I. GARCIA

## Jaunarena eta Barriola bikain aritu dira


Leitzar gazteak profesionalen lortu duen lehen garaipena erdietsi du Beroiz lagun duela

Erredakzioa Leitza

Binakako Pilota Txapelketaren hirugarren jardunaldia asteartean amaitu zen. Bertan Leitza bi pilotarik hartu zuten parte, Mungian, hain zuzen ere. Bigarren

mailan, Jon Jaunarenak Beroizkin osatu zuen bikotea eta profesional bezala lehen garaipena lortu zuen, 22-7ko emaitzarekin Urrutikoetxea eta Iza gaindituz.

Ondoren, Abel Barriolaren txanda iritsi zen. Lehen mailako partidaren Xala-Barriolak 22-12 irabazi zieten Berasaluze VIII. Apatzi. Partidaren lehen zatia parekatua izan zen, 10-11 egon zirelarik. Bigarren zatian ordea, Xalax ez zuen hutsik egin eta Berasaluze VIII.ak estuegi hartu zuen bere burua.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## → Laburrak

### Ageda Deunaren bezperako entsegua gaur

**IKAZTEGIETA** ◊ Ageda Deunaren bezperan kantatzen ateratzeko asmoa dute ikaztegieta-rrak. Horretarako entsegua egingo dute gaur 19:00etan, herriko liburutegian. Herritarrek bertara gonbidatu dituzte.

### Miru Sorginaren ipuinak entzuteko aukera, bihar

**ZIZURKIL** ◊ Bihar, hilak 21, Miru Sorgina Ipuin Kontalaria izango da Zizurkilgo Atxulondo Kultur Etxean, 17:30ean. Antolatzaileek azaldu dutenez, 3-6 urte bitarteko haurrentzat da egokia ipuin kontalari hau.

### Gaur paleta ikastaroa, 15:00etatik 16:30era

**AMASA-VILLABONA** ◊ Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak, 18 urtetik gorako emakumeentzat paleta ikastaroa antolatu du Amasa-Villabonan, Emakume Pilotari proiektuaren baitan. Parte-hartzaile kopurua gehitu asmoz, *Ate irekiak* antolatu dituzte, emakumeek ikastaroa ikusi eta proba dezaten. Gaur, 15:00etatik 16:30era izango da *Ate irekien* bigarren saioa.



**2011  
agenda**

*Dagoeneko salgai!*



**12€**

- Liburu dendetan
- [www.euskalherrikopla.com](http://www.euskalherrikopla.com)

### Ezaugarriak:

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepide mapa
- Aste osoa ikusgai

Aukera ezazu, bitxi euskaraz **berria**



# Internetez bideratu ahalko dira udalarekin eginbeharreko izapideak

Herriaren webgunea berritu du udalak Tolomendi elkartearen laguntzarekin

**Imanol Garcia** Albiztur

Albizturrek webgune berria du. Tolomendi elkartearen laguntzarekin egokitu du eta aurrerantzean udalarekin egin beharreko izapide guztiak bertatik bideratzeko aukera emango du [www.albiztur.com](http://www.albiztur.com) helbidean.

Brixi Arrue alkateak azaltzen duenez, «aurreko webgunea zaharkituta zegoen eta gainera aldatu beharra zegoen. Orain udalari egindako eskaerak egin ahal izango dira udaletxera joan gabe». Alkateak gaineratu duenez, «informazioa ere eskuragarri izango da webgune berrian».

Tolomendiko teknikaria den Joxi Balerdik azaldu duenez, alde batetik, «aurreko webgunetik berrira edukien migrazioa egin da». Hau da, herriko historia, argazkiak, monumentuak eta abarri buruz zegoen informazioa aurreko webgunetik berrira bideratu da. Lan horretan aritu da Aintzane Goenaga herritarra.


Bestetik, webgune berria Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen (IZFE) baitan kokatzen da. Horretarako ataleko informazioa eta zerbitzuak egokitu egin behar izan dituzte. Hemendik aurrera, udala bera joango da informazioa berritzen eta ataria kudeatzen.

## Erabat osatu gabe

Webguneak hainbat atal ditu. Udalerria ezagutzeko informazioa, udalaren organigrama eta administrazio-sailak, erabakiak



Albizturko webgunera sartzerakoan, [www.albiztur.com](http://www.albiztur.com), azaltzen den hasierako orria. HITZA



Herriko zenbait argazki zahar ikusgai daude. HITZA

Gaur egungo argazki ugari ere ikusi daitezke. HITZA



Herriko monumentuen berri dago. HITZA

Natur ondareak ere bere tartera du atarian. HITZA

eta araudiak, iragarki taula eta helbideak eta telefonoak ikusgai ditu. Agenda zerbitzua du eta eskari orri ezberdinen kopia bat jaisteko aukera dago.

Oraindik webgunea ez dago erabat osatuta eta bi astetara guttiz erabilgarria izango dela espero dute udaleko arduradunek. Tolomendi eskualdeko beste

zenbait herrirekin ere elkarlanean ari da webguneak berritzeko. Hain justu, Baliarrain, Orendain, Berrobi, Leaburu eta Belauntza herriekin ari da lanean.

## Aske geratu da Haimar Altuna euskal preso lizartzarra

Herenegun epaitu zuten gaztea Entzutegi Nazionalan; atzo jakin zen epaileak aske uztea erabaki zuela

**Erredakzioa** Lizartza

Haimar Altuna euskal presoaren senide eta lagunak azaldu duteenez, lizartzarra ondorengo ordutetan iritsiko da etxera. Hauek, senide eta lagunak, Valdemororako bidea hartu zuten atzo, Altuna Madrilera espetxe honetan egon baita azken hilabeteetan.

Haimar Altuna herenegun epaitu zuten Espainiako Entzutegi Nazionalan. «Hamalau guardia zibil» pasa ziren epailetan zehar, baina «ez zuten inongo frogarik jarri mahai gainean». Defentsa abokatuak beriz, «lan bikaina» egin zuela diote senideek eta absoluzioa eskatu zuela. Fiskalak bere aldetik zortzi urteko espetxe zigorra eskatu zuen. Atzo jakin zenaren arabera, epaileak defentsa abokatuari eman zion arrazoa eta ondorioz lizartzarra aske gelditu zen.

Haimar Altuna 2005eko martxoan atxilotu zuen polizia frantzesak Montpellier inguruetan. ETAko kide izatea leporatuta espeteratu zuten. 2010eko martxoan Espainiara estraditatu zuten.



Haimar Altuna. HITZA

## BERRIA taldeak zure laguntza behar du

HITZAK inoiz baino irakurle gehiago ditu, baina inoiz baino baliabide ekonomiko gutxiago. Interneten eta paperean, gure komunikazio proiektuak berritu eta indartu ditugu udazkenean. Apustu hau aurrera ateratzea da, zuekin batera, gure erronka.

**Ekarpena egiteko bideak**  
50 € • 100 € • edo nahi duzun kopuruarekin

Lagundu gaitzazu ekonomikoki

- **Transferentzia Euskadiko Kutxan: 3035 0060 48 0600113162 (izen-abizenak zehaztu)**
- **Kreditu txartelaren bidez: zuzaraberria.info webgunean**

Bihar ere euskaraz bizitzeko tresnak izan ditzagun!



berriketan.info



berria taldea

# Hatz-marka mahats bihurtuta

Fammlia enpresak marken eraikuntzan egiten du lan; bertako kidea da Mikel Aguado tolosarra

**Imanol Garcia**

Inoizko ardo etiketa onenen erakusketarako aukeratu du San Frantziskoko MOMA museoak beraiek egindako lan bat. Mikel Aguado tolosarra eta Mikel Uribeberria azpeitiarrak, Fammlia enpresaren sortzaileak, Bodegas Casa Primicia upategiaren Julian Madrid ardoarentzat sortutako etiketa da, hain justu, ohore hori jaso duena.

MOMAKo ardo etiketen erakusketak 2011ko apirilaren 17ra iraungo du eta bertan mundu guztiko 200 diseinu ikusi daitezke. «Fammliak Bodegas Casa Primicia etxearentzat egiten duen sormeneko eta komunikazio zuzendaritza-lanak markari arrakasta lortzen eta hedatzen lagundu dio, bai nazio mailako merkatuan, bai nazioartekoan», azaldu du Aguadok.

Erakusketan egongo den etiketa sortzeak lan asko eman ziela azaltzen du tolosarra. «Dozena erdi bat etiketa eginak genituen honetara iritsi aurretik, hori bai, behin hatz-markaren diseinua egin genuenean, garbi ikusi genuen, horixe zela bilatzen ari ginen etiketa», dio. «Egile-ardo bantzeko egilearen beraren hatz-marka mahats ale bat izango balitz bezala jartzea, lana borobil-duta gelditu zela irudituz gaitza».

## Marken eraikuntza

Fammlia Uribetxerriak eta Aguadok osatutako sorkuntza eta arte zuzendaritzako taldea da. Zortzi urte baino gehiago hainbat komunikazio agentziatan talde sortzaile gisa lanean aritu ondoren 2007an Fammlia sortu zuten. «Marken sormenean, zuzendaritza eta kudeaketan espezializatutako talde sortzailea» da, azaldu du.



Fammlia enpresak egindako zenbait diseinu. Bodegas Casa Primicia upategiarentzat egindako Julian Madrid ardoaren etiketa aukeratu du MOMAKo erakusketarako. Hatz-markarekin egindako mahats-mordoa ere erabili du ardoaren beste etiketa batzuk egiteko. Beste adibide bat LILArentzako, Italiako HIESaren aurkako taldea, egindako kanpaina da, prostituzioaren legalizazioaren aldekoa. Nazioarteko lehiaketa batean saritua izan da. Zinematik Surfing Zarautzen egiten den surfaren inguruko zinema jaialdia da. Azpiko irudian ikusimakusi optikarentzako egindako lana. HITZA

kuntzan dagoela azaltzen dute. Marka deitzen diote zerbaiten (pertsona, enpresa, elkarte, instituzio...) inguruan sortzen diren esanahi eta balioen multzoari. «Guzti honek definitzen du markaren ospea», gaineratzen dute Fammliaok.

«Guregana jotzen duten markentzat beren filosofia eta helburu estrategikoekin bat datorren nortasun bat eraikitzea da gure lana. Horrela bere publikoarekin lotura sinergiko eta iraunkor bat lortzeko», azaltzen dute.

Horretarako, lehenengo norberaren filosofia sortu edo ezagutu behar da, gero filosofia horrentzako egokia den nortasun erakusgarria sortu, irudi korporatiboa eta mintzaira estiloaren bidez.

**«Ilusio handia» egin die MOMAKo erakusketarako hautatuak izateak**

**«Gure sekretua bezeroekin familia antzeko talde bat sortze da», diote**

Hori guztia prest dagoenean markaren komunikazioa dator. «Une horretan sartzen da publizistaren lana», zehazten dute.

Fammlia enpresan bi kide dira. Gero lan-taldek sortzen dituzte proiektu bakoitzerako, «proiektu bakoitzak bere berezitasunak baititu», dio Aguadok. «Ez da berdina telebista kate baten irudia sortzea edo musika eta artea lotzen dituen ekitaldi bat egitea. Gu biok estrategia eta estrategia horren irudikatzea zuzenean lantzen ditugu bezeroekin. Guztia plazaratzeko orduan sortzen da lan-taldea».

Aguado eta Uribetxerriaren bezero asko ezagunak dira: Grenepece, EITB, La Sexta TV, Kutxa, Euskaltei, EHU... Bezero horiek «inplikazio eta lan sakon baten» lortzen direla esaten du Aguadok. «Gure sekretua bezeroekin familia antzeko talde bat sortzea da».

## IKUSIMAKUSI

Garai batean sormen eta diseinu sari ugari jaso zituzten, baina Fammlia sortu zutenean utzi egin zioten sarietara lanak bidaltzeari. Hori bai, MOMAKo erakusketarako hautatuak izateak «ilusio handia» egin die.

Fammlia hasi zutenetik «gure lanaren kalitatea da helburu bakarra, gure bezeroaren arazoa geurea egin eta ahal den irtenbiderik errentagarriena bilatzea,

bai dirutan bai markaren irudian», azaltzen dute. «Gu ez gara publizistak. Fammlia zeregina marketan esanahiak sortzeko beharrezkoak diren tresnak egin eta diseinatzea da, baita sortutako balioak publikoarengana igortzea ere», dio Aguadok.

Publizistarena eta beraien lana oso desberdinak direla azaltzen dute. «Publizista bat, izenak berak dioen bezala iragarkietara

mugatzen da, hau da, marka baten bere publikoari mezu bat igorri nahi dionean publizistari deitzen dio eta honek sormenaren bidez modu desberdin batean mezua kaleratzen du. Mezu hau batzuetan markari buruz izan daiteke, beste batzutan produktu baten abantaileri buruz edota promozio berezi bateri buruz...», esaten du tolosarra.

Beraien lana markaren erai-



HITZAK harreredun batentzat sarrera pareta du

Txolarre irratia antolatuta  
**Bertso Jaialdia**

Urtarrilak 22 • Larunbata, 18:00etan Tolosako Leidorren



**LAGUN ARO GBC**  
Fuenlabrada  
saskibalo partida

Urtarrilak 23 • Igandea, 12:30ean Donostiako Ilunben



HITZAK harreredun batentzat sarrera pareta du



# Txolarre irratiaren bertso jaialdia larunbatean 18:00etan Leidorren

Lujanbio, Arzallus, Egaña, Mendiluze, Maia eta Estiballes bertsolariak izango dira Amaia Agirrerren gidaritzapean

Leidor Antzokian izango da 18:00etatik aurrera eta sarrerak 8 euroko kostua du

**Eneritz Maiz** Anoeta

Txolarre irratiaren aireeratu zen lehen eguna 2000. urteko abenduaren 26an izan zen. Tolosaldeko euskarazko irratiak oztopo guztien gainetik, aurrera egin du eta hamar urte bete berri ditu.

Iazko urtea ospakizunez bete izan zuten. Duela urtebete, logo eta lelo berria aurkeztearekin batera, bertso jaialdi ederrea egin zuten Leidor Antzokia guztiz betez.

«Bertsotarako zaletasun handia dago Tolosaldean. Bertsozaleek eskatu eta eskertuko lukete urtero plaza garrantzitsu bat izatea gertuan. Txolarre horretan saiatuko da aurten ere, bertso jaialdi hau finkatzen» diote irratiak.

Bide batez, eskualdeko euskarazko irrati laguntzeko modua izango dute gerturatzen direnek. «Gonbidapena luzatu nahi diegu eskualdeko eta inguruko herritarrei».



Agirre gai jartzailea, Mendiluze, Lujanbio, Arzallus, Egaña, Estiballes eta Maia bertsolariekin. HITZA

Arrakasta hura ikusita aurtengorako ere bertso jaialdia prestatu dute Amaia Agirrerren laguntzarekin.

**Sarrerak salgai**

Amaia Agirre gai jartzaile dela, Amaia Agirre gaitzaile dela, Amaia Agirre gaitzaile dela, Amets Arzallus, Andoni Egaña,

Aitor Mendiluze, Jon Maia eta Arrakaitz Estiballes bertsolariak izango dira.

Sarrerak, Tolosako, Raku, Orabela, Denak eta Kantabriko tabernetan. Zizurkilen, Atxulondo eta Iriarte tabernetan; Anoetan, Buztina tabernan; Villabonan, Amasafetegian; Berastegin, Urepe-

le elkartean; eta Ibarra, Zubiaurre tabernan daude. Eta Txolarre irratiaren egoitzan bertan ere eskuratu daitezke.

Sarrera guztiak saltzen ez badira, egunean bertan erosteko aukera izango da Leidorreko leihatilan bertan, Sarrera 8 euro ordaindu beharko da.

**Jon Miranda** • Esataria

## «Eskura dagoen tresna da gurea eta herritarrek erabili dutelako irau du»

**E.M.**

Txolarre irratiaren jaio berria zela hartu zuen irratiaren gidaritzak Jon Mirandak. 2001. urtetik bidezidorretik barrena berak darabera txolarrea. FM 107.5 edo 101.2 frekuentzian entzun daiteke. Edo internet bidez [www.txolarre.org-en](http://www.txolarre.org-en). **Edozeinek ez ditu betetzen hamar urte. Nolako izan da ibilbidea?** Ez da erraza bi hitzetan hamar urteak laburbiltzea. Gauza asko pasa dira eta bidea ez da erraza baina uste dut oparoa izan dela. Eta guk ospatu egin behar dela uste dugu. Herritarrek kudeatutako irrati txiki bat da eta eskualdeko herritarrek euskaraz irrati bat entzuteko aukera izatea garai bat izan da. Ez dakit nola

egin dugun ere. Handiak txikia jaten du eta hor lekutxo bat egitea eta lekutxo hori hor mantentzea miraria dela iruditzen zait.

**Oztopo guztien gainetik aurrera.**

Arazorik handiena lege babesik gabe gaudela da. Udal irrati baten frekuentzia da gurea, hau da, Villabonako Udalarrena. Guk ordea, frekuentzia hori hartu eta eskualde osora zabaldu dugu euskarazko irrati eduki ahal izateko. Lege babesik ez dugunez diru laguntzak lortu ahal izateko bideak ere oztopatzen dizkigu eta beti kolokan zaude. Eta egin beharreko moldaketak ere guk egin behar ditugu, besteek zapaldu ez gaitzen. Eta ezin diegu administrazioari eskatu. Eta garaipena hor dago, mantentzean.



E. MAIZ

**Orain gutxi antena erorita egon zarete. Nola egiten duzue aurrera?**

Orain ere ez uste askoz hobeto gaudenik. Borondatearekin egin dugu aurrera. Eta batez ere, hemen inguruan gabiltzanok oso

barneratua daukagulako premiazkoa dela eskualderako euskarazko irrati bat edukitzea. Eta hamar urteko ibilbide honek erakutsi du beharrezkoa dela eta ez dela gutxi batzuen kapritxoa. Es-

kura dagoen tresna bat da eta herritarrek erabili dutelako irau du. Jendeak tresna hau erabili izan ez balu eta ahaztuko balitz, alferrik galduko zen. Erabiliz balio eman diegu irratiari eta hori da garrantzitsua. Eta horrela ateratzen da arazoetatik. Egin behar delako eta premiazkoa delako. Eskualdeko herritarrek eskubidea dute tokiko informazioa euskaraz emango dien irrati bat jasotzeko. Beraien hizkuntz eskubideen barruan sartzen da.

**Nolako harrera jasotzen duzue entzuleen aldetik?**

Urtean zehar egindako ospakizunetan guk uste baina harrera askoz hobea izan genuen. Egia da, Txolarrek laguntza behar izan duenean jendeak eman egiten duela. Herritar askok mobilizatzeko gaitasuna dutela ikusten dugu eta positiboa da. Eta antenarik gabe egon garen denboran jende askok deitu du zergatik ez den entzuten galdezka eta jende horrek naturaltasun osoz jasotzen du irrati eta poztetia da horrela deitu izana.

**TOLOSALDEKO hitza**  
ETA LEITZALDEKO

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**  
(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31860 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organiko, Datu Pertsonalak Babesteko, betetik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSALA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-ren hitza telegi automatizatu batera pasatu direla, enpresak dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzeko. Hala ere, nahi izanez gero, idari helbide honetara TOLOSALA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa, edo harpidetza@hitza.info

# Uzturpe ikastolak hamaikagarrenez Kultur Astea antolatu du

Mota guztietako ekitaldiak egongo dira, baita Alurr dantza taldearen ikuskizun berriaren emanaldia ere

**Eredakzioa** Ibarra

Hamaikagarren urtez jarraian, Ibarako Uzturpe ikastolak Kultur Astea antolatu du, datorren asterako, hilaren 24tik 31ra. Gustu guztientzako moduko ekitaldiak izango dira aukeran. Horien artean egongo dira hitzaldiak, mendi irteera, dantza, tailerrak eta abar. Gehienbat hitzaldiz osatuta dago egitaraua, eta hauek Benito Izagirre Kultur Etxean izango dira.

Astelehenean hasiko da Kultur Astea hitzaldi batekin. Izkalkiren eskutik Ttala Lizarraga soziologo, hezitzaile eta terapeutak, *Es-kola laguntza* gurasoei zuzendutako hitzaldia emango du. Hilaren 25an, Kutxa fundazioaren eskutik, hain garrantzitsua bilakatzen ari den elikaduraren inguruko hitzaldi bat izango da, 18:00etan. Joxe Amiama irakasle eta psikopedagogoak, hilaren 26an, *Galera eta dolua gure etxeetan* hitzaldia emango du, 18:00etan. Galera zer den ulertzeko, doluaren prozesua zein izaten den ikusteko eta galerei nola aurre egin jakiteko hitzaldia izango da.

**Alurren ikuskizun berria**

Herriko Alurr dantza taldeak *Oinazez* ikuskizun berriaren emanaldia eskainiko dute. Oso ema-

naldi berezia izango dantza taldearentzat, izan ere, ikuskizun berria lehen aldiz aurkeztuko dute herrian. Sarrerak jada salgai daude Ibarako Zubiaurre tabernan, Lurdes liburu-dendan, Uzturpe Ikastolan, Karlatz tabernan; eta Tolosako Orbel eta Denak tabernetan. Helduen sarrerak 10 euroan daude salgai, eta 16 urte artekoenak 6 eurotan. Larunbatean, haur festa izango dute. Alde batek, 18:00etan plazan txokolatada izango da. Bestetik, leku berean Alurr dantza taldeko gaztetxoek *Errota* emanaldia izango da, 18:30ean. Mendizaleen garaia igandean iritsiko da. Albizturretik Aldabara jaongo dira eta ibilbidean zehar aurkitzen dituzten zenbait leku ikusi edo bisitatuko dituzte. Amaitzeko, hilaren 31n matrikulazio garaia gerturatzen ari dela eta, ikastolaren funtzionamendua ezagutu ahal izango da, Emeterio Arrese eraikuntzan.

## ↓ XI. Kultur Astea

### EGUTEGIA

- **Urtarrilak 24.** 17:30ean *Eskola laguntza* hitzaldia.
- **Urtarrilak 25.** 18:00etan *Elikadura osasuntsua* hitzaldia.
- **Urtarrilak 26.** *Galera eta dolua gure etxeetan* hitzaldia.
- **Urtarrilak 28.** 22:00etan Alurr taldearen *Oinazez* ikuskizuna. Sarrerak salgai Ibarako eta Tolosako puntu ezberdinetan.
- **Urtarrilak 29.** 18:00etan Txokolatada plazan. Ondoren, Alurr dantza taldeko gaztetxoek *Errota* emanaldia.
- **Urtarrilak 30.** Mendi irteera: Albiztur- Aldaba.
- **Urtarrilak 31.** *Ateak zabalik* jardunaldia, ikastolaren funtzionamendua ezagutzeko, Emeterio Arrese eraikuntzan.



Alurr dantza taldeak herrian aurkeztuko ikuskizun berria. IT

# Haize gutxirekin abiadura makala du Mapfre ontziak

Xabi Fernandez eta Iker Martinez, hirugarren postuan egotetik zazpigarren postuan egotera pasa dira

**Eredakzioa** Ibarra

Ibarako Xabi Fernandez eta Iker Martinez ez daude beraien momenturik onenean, izan ere, egun gutxitan hirugarren postutik zazpigarrenera pasa dira. Horren erruduna haize falta da. Afrika eta Hego Amerika artean dauden Santa Helena irlen inguruan dabilta orain, eta beraien helburua bertatik ahalik eta azkarren aldentzea da, berriz ere haize gehiago izan dezaten eta aurrera egiteko aukera izan dezaten. Hemeretzigarren eguna dute Barcelona Word Race txapelketan eta ahal

duten guztia egiten ari diren arren, nahi baino polikiago doazela diote Fernandez eta Martinezek. Haizearen arazoa ekialdean doazen ontzi guztiek dute. Horren adibide, Mapfre ontziak 4,2 korapilotako abiaduran joatea; eta, sailkapenean lehenengo doazan Imoca 60 ontziak 2,8 korapilotako abiaduran joatea.

Ziurrenik ondorengo orduetan azkarrenak, mendebaldean doazen ontziak izango dira. Ekialdekoei milia askotako tartea aterako dietelarik.

Haize gutxiago egoteak, lan gehiago eskatzen diete Fernandez eta Martinezei, haizearen edozein mugimendu galdutako ezin duten aukera delako.

Orain beste ontziez ahaztu eta Santa Helenatik ahalik eta azkarren aldegitara da beraien helburua. Hemendik aurrera txapelketaren etapa berri bat hasiko da.

## → Laburrak

### Elkartasun azokan bildutakoarekin «pozik»

**BERASTEGI** › Joan den abenduan bigarren eskuko azoka antolatu zuten berastegiarrak. Antolatzaileak «pozik» daude azokak izandako emaitzarekin. Zehazki, 290 euro bildu dituzte. Azokan bildutako dirua, Etiopiako Wukro herrira bidaliko dute antolatzaileek. Berauek ohar baten bidez, eskerrak eman nahi izan dizkiete «azoka antolatzen parte hartu eta laguntza eman duten guztiei». Horrelako azokei esker edonork eman ahal izaten du laguntza, ahal duen neurrian.

### Arrospidek finalerdietara iristeko aukera

**LEABURU** › Igandean, hilaren 23an, Eusko Label Binakako Aizkora Txapelketako beste jardunaldi batean hartuko du parte Arrospidek Mugerza II. arekin batera. Bikotea Ataungo Auzoeta frontoian ariko da 12:30ean, Atutxa eta Azurmen diren aurka. Jardunaldi honetako irabazlea zuzenean pasako da Eusko Label Txapelketako finalurrekoetara.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN BALIOA**  
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, aior honetan lider garenaz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galdutuzuna,  
baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**

www.funerariavascongada.com





GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	OSKARRI
BEROENA	8°
HOTZENA	1°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818. tolosa@irragarri.net  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 118. ibaraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**MENDI IRTEERAK**

- **Tolosa.** Hilaren 22 eta 23an Frantziako Pirineoetara joateko irteera antolatu du Oargi mendi elkarteak. Larunbatean 07:00etan irtengo dira Gavarnie aldera. Igandean Saint Pe de Bigorre herrian dagoen trabesia espeleologiko bat egingo dute. Bertan 6 rapel egingo dituzte eta altuena 30metrotakoa dela argitu dute. Izena emateko deitu 688 69 86 42 telefono zenbakira edota idatzi [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org) helbidera.
- **Ibarra.** Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju mendi taldeak asteburu pasa egingo dute hilaren 22 eta 23an Zuberora ezagutzeko. Larunbatean 08:30ean irtengo dira herriko plazatik.
- **Villabona.** Aizkardi mendi taldeak Sara-Zugarramurdira joateko irteera antolatu du igandera. 07:00etan irtengo dira Olaederra kiroldegitik. Izena emateko deitu 649 71 71 82 telefono zenbakira (20:00-22:00). Izena emateko azken eguna bihar izango da.

**SAN SEBASTIAN EGUNA**

- **Berrobi.** Meza eta santu berriaren inaugurazioa 17:00etan. Ondoren, meriendatxo bat eskainiko diete bertaraten direnei.
- **Orendain.** 10:45ean herriko plazatik abiatuta kalejira txistulariekin ermitaraino. 11:00etan meza San Sebastian basilizan. Ondoren, udaletxean hamaiketako izango dute. 14:00etan Eltxoak elkartearen bazkaria egingo dute.
- **Leaburu.** 17:30ean meza San Sebastian ermitan. Ondoren, herriko dantzariak saioa eskainiko dute. Bukatzeko, afari-merienda izango dute herritarrek Zazpi Bide elkartearen.
- **Berastegi.** 10:00etan meza San Sebastian ermitan. Ondoren, hamaiketako emango diete bertaraten diren herritar eta inguruko guztiei.

**IPUIN KONTALARIA**

- **Ibarra.** Tolosaldea Garatzenek sustatzen duen *Mundu bat Tolosaldean* programaren baitan ingelesezko ipuin kontaketa izango da gaur Benito Izagirre kultur etxean 17:30etik aurrera. Saioa 6 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzenduta egongo da.

**ERAKUSKETAK**

- **Alegia.** Maria Luisa Gorrotxategiren margolanak urtarrila bukaera arte egongo dira ikusgai Alegiako Jubilatuen tabernan.

**DEIALDIK**

- **Tolosa.** Gernikako Akordioaren sinatzaileek elkarretaratzea burutuko dute gaur 19:30ean Trianguloan *Bakebidean Aterabide demokratikoak orain. Atxiloteta gehiagorik ez!* lelopean. Herritar guztiak gonbidatzen dituzte bertan parte hartzera.
- **Tolosa.** 2011 urte honetan San Bernardo Eskaut Gia taldeak 50 urte betetzen ditu. Hori dela eta aurtengo Inauterietako Astele nitako konpartsa berezia izatea nahi dute, 50 urte hauetan taldeetik pasa diren guztiei bertan parte hartzeko gonbite berezia luzatuz. Izena emateko azken eguna bihar izango da eta horretarako bi bide daude, 652 76 90 59 telefono zenbakira deitzea edota [sanbernardo.ihauteriak@gmail.com](mailto:sanbernardo.ihauteriak@gmail.com) helbidera idaztea.
- **Beterri.** Asteburu honetan hasiko da Beterriko IV. Bertsolari Txapelketa. Lehen kanporaketa Andoaingo Ontza elkartearen izango da ostiralean 20:30etik aurrera. Txartelak telefonoz ere eskatu daitezke, aurretik ordainduz gero 943 30 07 33 telefono zenbakira deituta.
- **Tolosa.** Gaurtik aurrera Uda-berri dantza taldea Larrain dantzako ikastaroak eskaintzen hasiko da Usabal kiroldegian. Ikastaroak 18 urtetik gorako jendearek zuzendutakoak izango dira. Eskolak ostegunetan burutuko dira 20:30etik 21:30era. Izena emateko bertara agertzea besterik ez dela behar argitu dute dantza taldekoek.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Ibarra.** Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.


**Irudia Tolosa**



**JASO DU URREZKO DANBORRA**

Atzo jaso zuen Xabi Alonso futbolari tolosarrak Donostiako Urrezko Danborra. San Sebastian Eguna da gaurkoa eta berez, urtero, gaurko egunez egiten dute ekitaldia, baina futbolariak partida du eta egun bat aurreratu dute Urrezko Danborra emateko ekitaldia, lehen aldiz. Ekitaldia udaletxean izan zen eta jende ugari bildu zen Alonso agurtzera. IRUTXULOKOHITZA

**Agurrak**



**Zorionak!**  
**Xuban Otero (Anoeta).**  
Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.

**agurrak**

urtebetetzeak - urrezko ezteiak  
ezkontzak - jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

**www.euskalherriko PLAZA.com**

**Amurrio**  
**Orio**  
**Bartzelona**  
**EDONORA!**

**Probatuz gero gustatu egingo zaizu!**

*Kalitatezko produktuak • Konfiantzazko ekoizleak eta zerbitzua  
Erosketak edonon jasotzeko aukera*

**Euskal Herriko produktuak, ekoizlearengandik zure etxera**